

Rescue me

Amaia Ezpeldoi bagina bezala, Euskal Herriko lau bazterrak korritu ditugu kasik, egun bakar batean, autoan, Iruñetik Baionara, Baionatik Donostiara eta hortik, Gasteizko bidean, Euskal Herritik kanpora, musika festibal baterantz. Lagunez, eta maletez, bete dut autoa, eta pozik goaz bidaian, musika ozenki, baina Mozarten *Libera me* gabe; askoz jota Aretha Franklinen *Rescue me*. Hainbat kilometrotara egon arren, Gaztelan dagoeneko, Estatuan alegia, supituan Euskal Herrira bihurtu gaitu urrunean ikusitako polizia kontrol batek. Jatorrizko bekatuaz, lehen gurasoek egindakoez, zikindutako seme koitadu errugabeok, zer estrategia jarraitu darabilgu buruan, ez gaitzaten geldiaraz, eta geldiarazten bagaituzte ez gaitzaten susmagarritzat: diskoen artean *requiem*-a bilatu, gure naturaren arabera marikontxirena egin...

* * *

Orrialdea urdintzen doi hasia aurrean eta ni hutsari begira, idazten nagoen gelara lagun bat sartu da eta galdetu dit ea trantzean nagoen. Badaki gaur behar dudala hau idatzi, Itxarori erantzunez eta agur eginez bide batez, eta nire balizko gogoetetan murgilduta utzi nau. Dutxa hartzera joan da. Nik berrekin diot trantzeari, nola jarraitu baino areago, zergatik ez dudan aurrera egiten hausnartzen dudalarik: nondik datoz idazteko ideiak? Badakit zer kontatu baina ez nola. Idaztea, enetzat, beti da morfomakia. Inspirazioa, esan zuen norbaitek, ehuneko laurogeita hamarrean transpirazioa da. Nik uste dut inspirazioaren portzentaia handi bat xahutu egiten dela burututako lana ez gorrotatzeko ikasten, ahal dugun txoa onartzen. Poetak esan zuen bezala, “ez etsi, oraindik ez duzu esan / inoiz helduko ez diozun hori”. Poeta ni naiz.

Laguna, dutxatu eta jantzi berritan, sartu zait gelara, nire ondoan eseri ohean, eta folioari ez



Angel Erro

Basterretxea

Borda

diodala hitz bakar bat ere gehitu ikusi du. Eskatu dit orain artekoa irakurtzen utz diezaio-dala. Ez diot utzi, eta orrialdea hartu dit: “Honetarako horrenbeste denbora? Gainera, ez dugu Aretha Franklinen eka- rri, eta polizia kontrola azken unean istripu bategatik bildutako anbulantziak eta udaltzainak ziren, ez horrelako misteriorik. Gure argoteko marikontxia zer

den ere inork ez dizu ulertuko”.

Horrela akuilaturik, lanari berregiteko gogoz betea, galdetu diot berak nola egingo zuen, nola helarazi nahi ditudan ideiak bata bestearen atzean ordenatu. Esan diot idatzi nahi dudala Summercasean ikusitakoaz. Euskal Herritik kanpo euskalduna izatearen zamaz –honetaz agian ez dut idatzi nahi–. Euskaldun begiradaz. Musika festibal erraldoia eta Nafarroa Oinez alderatu, adibidez. Zein bitxia egiten zaidan pankartarik gabeko kontzertu bat, *besta bai borroka ere bai* gabekorik. Pastazko betaurrekoez ere hitz egin nahi-ko nuke. Gogoratzen dut Eider Rodríguezen zutabe bat, *Berrian*, pastazko betaurrekoen eta marradun kamiseten modari buruz moderno- txoen artean. Eiderrri idatzi nahi nioke marra- dun kamisetak zein poloak hasi direla desa- gertzen. Antonomasiaz euskal estilo kasual-borroka berreskura daiteke. Intelektualek, baina, itxaron beharko dute pastazko betaurrekoen monopolioa berrartu arte. Barra-barra ikusi ditugulako halako antiojoak.

“Asteburuaren kronika bat, beraz?”. Baina aldi berean Itxaro Bordak esandakoei segida eman, ohore bat izan dela berarekin ttakunkatzea, eta abuztuko oporrak aipatu, denbora bat

egongo garelako hemen idatzi gabe, eta Jose Inazio Basterretxeare ere oina eman, irailera arte oihartzuna izan dezakeen gai handiren batekin.

“Begira, egingo dugu gauza bat, zu joan dutxatzera, bestela ez garelako hemendik inoiz mugituko eta ni arduratzen naiz guztiaz”. ■

Nondik datoz idazteko ideiak? Badakit zer kontatu baina ez nola. Idaztea, enetzat, beti da morfomakia.

Inspirazioa, esan zuen norbaitek, ehuneko laurogeita hamarrean transpirazioa da